

**ELORREGIKO BIRIBILGUNEAN AUTOBUS GELTOKIA ETA KOMUNA EGOKITZEKO, HIRI
ALTZARI BEREZI HONEN MANTENUA ETA KUDEAKETARAKO LANKIDETZA HITZARMENA**

Oñatin, sinadura digitalean ageri den datan,

ALDERDIAK

1. Izaro Elorza Arregui, Oñatiko Udalaren alkate bezala.
2. Maite Anton Leno, Debagoienako Mankomunitatearen lehendakaria.
3. Gorka Artola Alberdi, Bergarako Udalaren alkate bezala.
4. Maria Ubarretxena Cid, Arrasateko Udalaren alkate bezala.

Alderdi guztiek, hitzarmen honetan betebeharrak hartzeko beste ahal eta legezko gaitasun aintzatetsi diote elkarri; hori horrela, adostasunez eta libreki ADIERAZI DUTE

HELBURUA

Hitzarmenaren xedea da Elorregiko biribilgunean eraiki nahi den autobus geltokia eta komuna egokitzea, hiri altzari berezi honen mantenua eta kudeaketarako lankidetza hitzarmena arautzea.

AURREKARIAK

San Prudentzio edo Elorregiko (Elorregi auzo ingurua, Oñati, Arrasate eta Bergarako udal barrutien mugan dagoen biribilgunean) autobus geltokia hobetzeko hainbat eskaera historikoei irtenbidea emateko helburuarekin 2017ko ekaina inguruan, Oñatiko Udaleko eta Arrasateko Udaleko ordezkariak GFAko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Sailaren zuzendariarekin bildu ziren.

GFAko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Sailaren iritzia da komun publikoak hiri-altzari bezala kontsideratzea, ondorioz, komunak jartzea eta horien mantentze-lanak egitea udalei dagokiela.

Hala ere, kontuan izanda autobus geltokia Arrasate eta Oñati arteko udal-mugan dagoela eta geltokiak izaera berezia duela, GFAko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Sailak egitasmoa diruz laguntzeko konpromisoa azaldu du.

Horrekin batera, Oñati, Arrasate eta Bergarako udalek azpiegitura egokitzeko jarraian azaltzen den lankidetza hitzarmena adostu dute.

HITZARMENAREN ALDEAK

Oñati, Arrasate eta Bergarako udalek interes handia erakutsi dute San Prudentzio geltokian (Elorregi biribilgunean) autobus geltokia eta komuna egokitzeko. Hori dela eta, Taper Arkitektura enpresak 2021eko irailean idatzitako “*adecuación de parada de autobus y baño*” exekuzio proiektuak deskribatzen dituen lanak sustatuko dituzte elkarlanean. Proiektuak 2022ko eguneraketa bat izan du, aurrekontua 2022. urtean merkatuak izandako prezio igoerara moldatzeko. Gainera, 2023ko otsailean zenbait egokitzapen egin zaizkio proiektuari eta aurrekontuari.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 31. artikulua oinarri hartuta, erakundeen arteko lankidetzaren horizontaleko sistemen bitartez kontratatuko dira lanak.

Oñatiko Udala izendatzen da kontratazio-prozedura gauzatzeko solaskide-arduradun bezala eta Arrasate eta Bergarako Udalak interesdun bezala (9/2017 SPKL 31.3 art).

Behin obra eginda Debagoienako Mankomunitateak hiri altzari berezi hau bere gain hartuko du. Azpiegitura bera mantentzeko ardura izango du eta autobus geltoki inguruko zerbitzuak kudeatuko ditu: hondakinen bilketa eta komunaren garbiketa.

LANEN FINANTZIAZIOA

Lanen finantziazioa ezartzerako orduan, egitasmoa aurrera eramateko Udalez gaindiko koste guztiak hartu dira kontuan, hau da: obrak gauzatzeko exekuzio proiektuak jasotako aurrekontuaz gain, proiektua idazteko, lanak zuzentzeko eta segurtasun eta osasun koordinazio lanak egiteko lansariak ere kontuan hartzen dira.

Laburbilduta:

Deskripzioa	Kostea BEZa barne
Elorregiko biribilgunean autobus-geltokia eta komuna egokitzeko proiektu basikoa idaztea (Tapper)	4.537,50 €
Elorregiko biribilgunean autobus-geltokia eta komuna egokitzeko exekuzio proiektua idaztea (Tapper)	6.019,75 €
Adecuación de parada de autobus y baño exekuzio proiektuaren aurrekontua	203.542,09 €
Autobus-geltokia eta komuna egokitzeko lanen zuzendaritza teknikoa eta segurtasun eta osasun koordinazio lanak egitea (Tapper)	11.797,50 €
GUZTIRA	225.896,84 €

Lanak dirauten bitartean, Oñatiko Udalak solaskide eta arduradun bezala, faktura guztiak ordainduko ditu. Halaber, aurreikusten den GFAko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Sailaren dirulaguntza jaso eta justifikatuko du.

GFAko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Sailak aurreikusitako kostearen %60ko dirulaguntza ematea aurreikusten du, hau da, gehienez 133.223,77 €.

Obra amaitzen denean, izandako gastu guztien likidazioa egingo da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatzeko ez duen zatia 3 udalen artean, zati berdinetan ordainduko da.

Obrak, aurreikusitakoa baino kostu gehiago ala gutxiago izango balu, udal horien ekarpena moldatu beharko litzateke, proportzionaltasun bera mantentzeko. Oñatiko Udalak proiektuaren eta aurrekontuaren edozein aldaketa beste bi udalei helarazi beharko dio.

Oñatiko Udalak Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotzen duen dirulaguntzaren berri eman beharko die Arrasate eta Bergarako Udalei.

EMAKIDAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA

Elorregiko autobus geltokia eta komuna egokitzeko obra Bergara, Arrasate eta Oñatiko Udalek sustatu dute. Hala ere, Debagaraia bailarako herritar guztiei zerbitzua emango die. Autobus geltokia eta komuna Arrasate eta Oñatiko udalerrien arteko mugan kokatzen da, hau da, bi udalerrietako lurra hartzen ditu. Hain zuzen, berezitasun horiek (bailarako herritarrei zerbitzua ematea eta 3 udalerrietako mugan kokatzea) azpiegituraren mantenua eta kudeaketa zailtzen du.

Nolanahi, azpiegitura eraiki ondoren, mantenu arrunta zein komunaren garbiketa zerbitzua emateko beharra izango da. Irtenbide bat emate aldera, azpiegitura sustatzen duten 3 Udalek Debagoieneko Mankomunitatearekin adostu dute eraikinaren mantenua eta kudeaketa egiteko modua. Mankomunitateak bere estatutuen 7.3 artikuluan oinarrituz eta 13. artikuluko gobernu juntaren 18. eskumena baliatuz, 3 udalen ekintza hau koordinatuko luke.

ONDASUNAREN DESKRIBAPENA

Elementu bakarrean autobus-geltokiari lotutako erabilera desberdinak batu dira, itxaroteko "pabiloi" txiki bat sortu da, aurretik sakabanatuta zeuden piezei kontrajarrita. Markesina berria oinplano linealean garatzen da, eta lehengo autobus-geltokiaren aurrean jarri da, guztira 56 m²-ko azalera eraikia du.



Eraikin arina da, euskarri ugariko metalezko bilbaduraz osatua. 18 cm-ko lodierako lauza armatu baten bidez egindako azaleko zimenduak ditu. Egitura altzairuzko profileria soldatuzko eta C3 motako pinturazko egitura arin batez osatuta dago. Egitura nagusi gisa, tamaina txikiko euskarri ugari daude (PHC-100.4 (x15) eta PHR-140.100.4 (x1)), goiko habe perimetralen bidez (PHR-200.100.4) elkarri lotuta.

Estalkia, ur bakarrekkoa, estrukturan bermatutako sandwich motako panelen bidez egiten da. Eraikinaren inguratzaileak azal bikoitza du fatxadan. Kanpoko azala altzairu herdoilgaitzezko panel lauez osatuta dago, tolestura batzuekin. Barruko azala panel leun fenoliko osatuta dago.

Alde batean komun kimikoa dago. Bere perimetrea 15x20x40cm-ko hormigoizko bloke hutsezkoa da, 20x20cm-ko alikatatu portzelaniko gris ilunez estalia. Sabaia aluminiozko profilen bidez egiten da, hormigoizko blokeko itxituretan ainguratuta; horiei 15 mm-ko igeltsu hidrofugozko plakak torlojutzen zaizkie, alikatatu berarekin estaliak. Zorua alikatatze portzelaniko estali da.

Markesina hiru altzariren bidez osatzen da. Alde batetik, altzairu herdoilgaitzez amaitutako eta egituratik zintzilik dagoen banku jarraitu bat; bestetik, altzairu galbanizatuzko autoentzako topeko bi elementu; eta, azkenik, altzairu galbanizatu lakatuzko 7 bizikleta-aparkaleku. Autobus-geltokiaren eremuan, agregakin granitiko arteztuko baldosa-zoladura dago.

Gaur egun ez dago ur-hornidurarako edo saneamendurako sarerik. Argindar hartunea du.

DEBAGOIENAKO MANKOMUNITATEAREKIN LANKIDETZARAKO BALDINTZAK

Oñatiko Udalak, Bergarako Udalak eta Arrasateko Udalak elkarlanean sustatuko dute obra. Lurzorua Gipuzkoako Foru Aldundiarena da.

Hiri altzari berezi hau bertan eraikitze baimena GFako errepide sailak eman dio 3 Udalei (2023ko martxoaren ebazpena).

33/2003 Legearen, 93. eta 137. artikuluetan oinarri hartuta, aipatu lanen sustatzaile diren 3 Udalek hiri altzari berezi honen guztiaren ondasun edo eskubideen gainean jabari publikoko doako emakida emango diete Debagoieneko Mankomunitateari. Debagoieneko Mankomunitateak ezingo du azpiegitura hirugarren bateri lagatu 3 Udalen oniritzirik gabe.

Debagoieneko Mankomunitateak azpiegituraren mantenuaren ardura eta kudeaketa izango du, besteak beste, erabilerarekin zerikusia duten eraberritze edo berregokitze-lanak zein eraikinaren egonkortasunarentzat ezinbestekoak diren lanak. Hitzarmenak irauten duen bitartean, konponketa guztiak mankomunitatearen ardura izango dira.

Debagoieneko Mankomunitateak geltokia bera eta bertako komunaren zerbitzua baldintza egokietan emateko ardura izango du. Besteak beste, komun kimikoak garbitu, hustu eta kudeatu beharko ditu zerbitzuak eskatzen duen maiztasunarekin. Halaber, komunaren eguneko garbiketa orokorraren ardura izango du.

Gainera, geltokiko erabiltzaileek sortzen dituzten hondakinak egoki bideratzeko eta hauek jaso eta dagokion kudeaketa egiteko ardura izango du Debagoieneko Mankomunitateak. Halaber, azpiegituraren argi hornidura bermatu behar du, beraz kontratua bere izenean kontratatuta beharko du dagozkion fakturak ordainduz.

Debagoieneko Mankomunitateak obra horren aseguruia ere (bai ondasunarena bai erantzukizun zibileko aseguruia) kontratatu beharko du, edozein ezbeharretik babestua egoteko.

Egindako aurreikuspenak honakoak dira:

Deskripzioa	Orduak	Egunak	Urtean € BEZa barne
Garbiketa	23,47 €	360	8.450,64 €
Kimikoak garbitu hustu eta kudeatu	50,00 €	156	7.800,00 €
Konponketak eta ez aurreikusiak			749,00 €
GUZTIRA			16.999,64 €

Oñatiko, Bergarako eta Arrasateko udalek bere gain hartuko dute mantenu eta kudeaketa zereginetan sortzen diren urteko gastuak. Urtea bukatzean, Debagoieneko Mankomunitateak izandako gastuen likidazioa aurkeztuko die 3 udalei eta hauen artean zati berdinetan ordainduko diote Mankomunitateari aparteko diru ekarpen bezala.

HITZARMENAREN JARRAIPENERAKO BATZORDEA.

Hitzarmen honen helburuak modu egokian bete daitezen, beraren jarraipena egiteko Batzordea eratzen da honako pertsona hauek osatzen dutena: 3 udaletako alkateak edo horiek ordezkatzeko dituzten zinegotziek; Debagoieneko Mankomunitatearen lehendakaria edo bere ordezkaria.

Jarraipen Batzordeko bileretara, hitzarmena sinatzen duten edozein alde hala eskatuta, beste pertsonaren batzuk ere joan ahal izango dute, gai zerrendan dagoen gairen baten iritziz tekniko edo profesionala emateko.

Jarraipen batzordea urtean gutxienez behin bilduko da.

Halaber, edozein aldeetako batek jarraipen batzordearen bileraren bat eskatzen badu, bilera eskatu denetik hogeita hamar egun baino lehen ospatuko da bilera hori.

HITZARMENAREN INDARRALDIA ETA APIKAGARRI DIREN ARAUAK

1. Hitzarmena indarrean hasiko da aipatutako lanak bukatzen direnean eta Debagoieneko Mankomunitatearekin hiri altzari berezi horren jabari publikoko emakida formalizatzen den momentuan. Hitzarmen honek 4 urteko iraupena izango du, eta beste 4 urte gehiago luzatu daiteke (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.h artikulua).
2. Hitzarmen hau ezin izango da aldatu indarrean dagoen bitartean.
3. Hitzarmena suntsiarazteko, osorik aplikatuko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. artikulua 2. zenbakian xedatutakoa. Hitzarmen honetatik sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira, haien izaera juridiko-administratiboa dela eta.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Lankidetza hitzarmena: ELORREGIko biribilgunean autobus geltokia eta komuna

CSV/EKS:

SINA9093722e-3ff7-49bc-b3df-5189a893fc2a

Sinatzailea 1 / Firmante 1: MAITE ANTON LENO - 72748365D
Data / Fecha: 2023/05/04 10:50:58

Sinatzailea 2 / Firmante 2: MARIA UBARRECHENA CID
Data / Fecha: 2023/05/08 11:14:29

Sinatzailea 3 / Firmante 3: GORKA ARTOLA ALBERDI - 72581398E
Data / Fecha: 2023/05/16 14:05:10

Sinatzailea 4 / Firmante 4: IZARO ELORZA ARREGUI - 15396342G
Pertsonal teknikaria
Data / Fecha: 2023/05/16 14:29:39